



PRENTSARAKO OHARRA

ENKARTERRIKO 1870-1975 ARKITEKTURA INBENTARIOAK MUGAK GAINDITU DITU, DOCOMOMON AINTZATESPENA JASO DAU ETA

- **Bizkaiko Batzar Nagusiek egindako azterlana joan dan abenduko DOCOMOMO IBÉRICO Boletinean agertu da, Mobimendu Modernoko arkitekturaren eta urigintzaren dokumentazinarako elementu garrantzitsu moduan.**

(Bilbon, 2020ko urtarrilaren 17an).- “Azterlan-Inbentarioa: Enkarterriko Arkitektura Garaikidea (1870-1975)” lanak nazino eta nazinoarte mailako eraginaren garrantzitsua lortu dau, 2019ko abenduko “Docomomo Ibérico” Boletinean, Mobimendu Modernoko arkitekturaren eta urigintzaren dokumentazioari eta kontserbazioari jagokonez nabarmendu beharreko azterlan moduan aitatu da eta. “Docomomo Ibérico”, Mobimendu Modernoko urigintzaren eta arkitekturaren ganeko nazino eta nazinoarte mailako argitalpen ospetsuenetakoa da.

DOCOMOMOn (Documentation and Conservation of Building, Sites and Neighbourhoods of the Modern Movement), Mobimendu Modernoaren arkitektura ondarearen inbentarioa egiteko eta zabaltzeko eta babesteko helburuagaz 1990ean sortu zan nazinoarteko erakundean, egindako aitamenak, joan dan azaroaren 13an aurkeztu zan Bizkaiko Batzar Nagusien azterlanaren balioa autortzen dau.

Docomomo Ibérico fundazioa Nazinoarteko Docomomoren ordezkartzea da, 1994an sortu zan eta egoitzea Bartzelonan dauka. Bere helburua, arkitektura eta urigintza arloetako kontserbazioaren helburu nagusiak Espainian eta Portugalen apliketea da. Fundazioan ia Arkitektoen Elkargo guztiek hartzen dabe parte, eta baita herrialde bietan arkitektura ezagutuazoten behar egiten daben alkarteek be.

“Azterlan-Inbentarioa: Enkarterriko Arkitektura Garaikidea (1870-1975)”, Enkarterrietako Museoak bultzatutako lan zorrotza da. Museoa Bizkaiko Batzar Nagusien esku dago, eta azterlana Gorka Pérez de la Peña Oleaga historialariak egin dau.

Orain arte Bizkaian egin dan epealdi horretako arkitektura ondarearen bilduma nagusia da, eta Enkarterriko 20 udalerrri jasoten ditu, eskualdea historiaren ikuspegitik ulertuta, Ezkerraldea eta Meatzaldea be barruan hartuta.

Azterlanak 1.500 eraikin inguru jasoten ditu. Horreetatik, 1.200 lehenengoz aztertu dira egitasmo honetan; ganerakoak, Portugaleteri, Sestaori eta Barakaldori buruzko monografietan daborduko aztertuta egozan eraikinak dira.

Azterlanean jasoten diran udalerriak Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Barakaldo, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Muskiz, Karrantza, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopuerta, Trapaga, Turtzioz, Zalla eta Zierbena dira. 20 udalergi horreetako bakotxak bere atala dauka, eta bertan aztertu diran eta eskualde horreetatik ibili ezkeru ikusi daitekezan arkitekturako 11 estiloetan sailkatu diran eraikin guztiak aurkezten dira. Eraikin bakotxak bere fitxea dauka, data, egilea, kokalekua eta arte eta ondare arloko azalpena jasoz.

Inbentarioa, gure arkitektura ondarea herritarrei hurreratzeko elementua da, eta baita euren uri-plangintzak egiteko edo ondarea zabaltzeko orduan erabili ahal izango daben erakundeentzako, udalantzako edo profesionalentzako lanerako tresnea be.

Inbentarioa Enkarerrietako Museoaren webgunean kontsultau daiteke, eta baita daborduko aitatu diran Portugaleteko, Sestaoko eta Barakaldoko monografien PDF bertsinoak be, esteka honetan:

<http://www.enkarerrimuseoa.eus/home/publicaciones.asp>



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

EL INVENTARIO DE ARQUITECTURA 1870-1975 DE LAS ENCARTACIONES TRASPASA FRONTERAS AL SER RECONOCIDO EN DOCOMOMO

- **El estudio de las Juntas Generales de Bizkaia ha aparecido en el Boletín del DOCOMOMO IBÉRICO del pasado diciembre como un elemento importante de documentación de la arquitectura y el urbanismo del Movimiento Moderno.**

(Bilbao, a 17 de enero de 2020).- El “Estudio-Inventario de la arquitectura contemporánea de las Encartaciones (1870-1975)” ha logrado un importante impacto nacional e internacional, al haber sido incluido en el Boletín “Docomomo Ibérico” de diciembre de 2019 entre los elementos a reseñar en cuanto a la documentación y conservación de la arquitectura y el urbanismo del Movimiento Moderno. “Docomomo Ibérico” es una de las publicaciones nacionales e internacionales de mayor prestigio en relación al urbanismo y la arquitectura del Movimiento Moderno.

La mención en DOCOMOMO (Documentation and Conservation of Building, Sites and Neighbourhoods of the Modern Movement), la organización internacional creada en 1990 con el objetivo de inventariar, divulgar y proteger el patrimonio arquitectónico del Movimiento Moderno, supone el reconocimiento del valor de este Estudio de las Juntas Generales de Bizkaia que se presentó el pasado 13 de noviembre.

La Fundación Docomomo Ibérico es una delegación del Docomomo Internacional, que se crea en 1994 y que tiene su sede en Barcelona. Su finalidad es aplicar los objetivos generales de conservación arquitectónica y urbanística en España y Portugal. En la fundación participan casi todos los Colegios de Arquitectos así como entidades dedicadas a la divulgación de la arquitectura de ambos países.

El “Estudio-Inventario de la arquitectura contemporánea de las Encartaciones (1870-1975)” es un pormenorizado trabajo impulsado por el Museo de las Encartaciones, dependiente de las Juntas Generales de Bizkaia, y realizado por el historiador Gorka Pérez de la Peña Oleaga.

Es la mayor recopilación de patrimonio arquitectónico de este periodo realizado hasta la fecha en Bizkaia e incluye 20 municipios de la comarca de Las Encartaciones, entendida en un sentido histórico e incluyendo así a Margen Izquierda y Zona Minera.

El trabajo incluye una cifra aproximada de 1500 edificios. De ellos, 1.200 han sido por primera vez estudiados en este proyecto; el resto son edificios recopilados años atrás en las monografías dedicadas a Portugalete, Sestao y Barakaldo.

Los municipios incluidos en el trabajo son Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Barakaldo, Galdames, Gordexola, Güeñes, Lanestosa, Muskiz, Karrantza, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sopuerta, Trapagaran, Turtzioz, Zalla y Zierbena. Cada uno de estos 20 municipios tiene su propio apartado donde se presentan todos los edificios estudiados y clasificados por los 11 estilos arquitectónicos que se pueden ver paseando por estas comarcas. Cada edificio cuenta también con su ficha, que incluye la fecha, el autor, ubicación y explicación artística y patrimonial.

Este inventario es un elemento de consulta para acercar a la ciudadanía nuestro acervo arquitectónico y también, una herramienta de trabajo para instituciones, ayuntamientos y profesionales que pueden utilizarla a la hora de realizar planificaciones urbanas o difundir su patrimonio.

El inventario se puede consultar en la página web del Museo de Las Encartaciones, incluyendo las versiones en pdf de las monografías ya citadas de Portugalete, Sestao y Barakaldo, en el siguiente enlace:

<http://www.enkarterrimuseoa.eus/home/publicaciones.asp>